Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Lankidetza-Cooperación

# Lankidetza Kontseilu Sektoriala – Ohiz kanpoko eta premiazko saioa
## Consejo Sectorial de Cooperación – Sesión extraordinaria y urgente

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2015eko abenduaren 10ean** / 10 de diciembre de 2015<br>**Ghandi aretoa. Aieteko Jauregia** / Sala Ghandi. Palacio de Ayete<br>**9:30an** / A las 9:30 horas |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **10:20an** / A las 10:20 horas |

### GAI-ZERRRENDA:
ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| 1. Premiazko biltzearen zergatiaren azalpena eta plenoaren berrestea. | 1. Explicación del carácter urgente de la sesión y ratificación por parte del pleno. |
| 2. Kontseiluko lehendakariak, Udal Gobernuak 2016 urterako lankidetza arloan aurreikusitako aurrekontuen aurkezpena. | 2. Presentación de la Presidenta del consejo de los presupuestos previstos para el ejercicio 2016 del equipo de gobierno en materia de cooperación. |
| 3. Legealdiko lerro eta ildo estrategikoen aurkezpena. | 3. Presentación de líneas estratégicas y de actuación de la legislatura. |
| 4. Udal Gobernuak, lankidetzako politiken inguruan, parte hartzerako dituen espazioen eta moduen baliagarritasuna aztertu. | 4. Analizar los espacios y cauces de participación establecidos por el gobierno municipal en materia de cooperación. |

### BILERAN PARTE HARTU DUTE:
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **PSE-EE (Duñike Agirrezabalaga) Auzoetako eta deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria**<br>PSE-EE (Duñike Arrizabalaga) Concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad cívica, Igualdad y Cooperación |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | • **EAJ-PNV**<br>• **PSE-EE**<br>• **EH BILDU**<br>• **PP** |

| | |
|---|---|
| **ELKARTEAK, HERRITARRAK, GARRANTZI BEREZIA DUTEN GIZARTE TALDEAK**<br>ASOCIACIONES, CIUDADANO/AS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL | • **ADSIS**<br>• **CALCUTA ONDOAN**<br>• **DERANDEIN**<br>• **DYA GIPUZKOA**<br>• **MUGARIK GABEKO EKONOMIALARIAK**<br>• **F.I.S.C.-MARIAREN LAGUNDIA**<br>• **HAURRALDE FUNDAZIOA**<br>• **ICLI- INGENIERÍA PARA LA COOPERACION**<br>• **INTERED**<br>• **MEDICUS MUNDI GIPUZKOA**<br>• **MUGARIK GABE**<br>• **MUGEN GAINETIK**<br>• **MUNDUBAT**<br>• **PAZ Y SOLIDARIDAD**<br>• **PROYDE-PROEGA**<br>• **SAHARAKO LAGUNEN ELKARTEA**<br>• **SETEM**<br>• **TAU FUNDAZIOA**<br>• **UNICEF**<br>• **EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEA**<br>• **Herritar 1. norbanakoa /** Persona interesada 1 |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | **EMAUS** |
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Kontseiluaren Idazkaritza. Lankidetza teknikaria**<br>Secretaría del Consejo. Técnica de Cooperación<br><br>**Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzu burua**<br>Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social<br><br>**Lankidetza Ataleko burua**<br>Jefa del negociado de Cooperación |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **26 Lankidetzako Kontseilu sektorialeko kideak, jarraian adierazten direnez gain: udalek 3 ordezkari tekniko (2 emakumezko eta gizonezko 1).**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = **14**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **13**<br><br>26 personas integrantes del Consejo Sectorial de Cooperación, además del personal técnico municipal: 3 personas (2 mujeres y 1 hombre). |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | **Lankidetza atala** - Negociado de Cooperación: Aiete Jauregia<br>Aiete Pasealekua 65, 1./ 943 48 14 71 / lankidetza_cooperacion@donostia.eus |

## SAIOAREN BILAKAERA:

DESARROLLO DE LA SESIÓN:

**1.- Premiaz biltzearen zergatia azaltzea eta plenoaren berrestea.**

Idazkariak azaldu du Kontseiluaren aurreko bilkuran erabaki zela ohiz kanpoko bilkura baterako deia egitea, aurrekontuak esplikatzeko, baina agenda kontuengatik deia egitea atzeratu zela, eta azkenean Batzorde Iraunkorrak idatziz eskatu duela.

GGKEen Koordinakundearen ordezkari eta Batzorde Iraunkorreko kideak esplikatu du premiazkoa zela aurrekontuetara ekarpenak egiteko aukera ematea, onartzekotan baitaude aurrekontuak. Duñikeri eta taldeari eskertu zaie bilkurarako tarte bat aurkitu izana, eta gogorarazi du Kontseilua elkarlanerako eta parte hartzeko gunea dela, guztien artean lankidetzaren arloan aurrera egiteko.

**2., 3. eta 4.- Lehendakariak aurkeztea 2016rako aurreikusitako aurrekontuak, legealdiko estrategia eta jardun ildoak, eta lankidetza arloan Udal Gobernuak ezarritako partaidetza gune eta bideen azterketa**

Etorritakoei 2016ko aurrekontuaren kopia eman zaie. Lehendakariak dio aurreko urtearekiko jarraipenezko planteamendua egin dela, eta alde bakarra dela lankidetzako diru laguntzen deialditik % 10 kendu dela, eta % 10 horrekin larrialdiko laguntzarako laguntza linea berri bat sortu dela. Siriar iheslarien etorrerak eragin du linea berri hori jartzea, bat-batean etorriko zirela baitzirudien, nahiz eta azkenean oso pixkanaka etortzen ari diren. Gainerako diru laguntzek lehen bezala jarraitzen dute: lankidetzako eta sentiberatzeko diru laguntzak. Hitzarmenek ere berdin jarraitzen dute, bai eta aurrekontuaren gainerakoak ere.

Ildo estrategikoei dagokienez, 2016ko lehen hilabeteetan 2011-2015 Gida Plana ebaluatuko da, eta beste plan bat taxutu behar da, 2017tik aurrera abiarazteko. Horretarako, Kontseiluak parte hartzea espero da. Gipuzkoako Aldundiarekin, ildo komunak izateaz gainera, koordinazioan jardungo da; eta erakunde publiko gehiagorekin egin ahal bada, hobeto.

**1.- Explicación del carácter urgente de la sesión y ratificación por parte del pleno.**

La Secretaria explica que en el Consejo anterior se acordó la convocatoria de una sesión extraordinaria para explicar los presupuestos, pero por cuestiones de agenda se tardó en convocar, y al final la Comisión Permanente lo ha solicitado por escrito.

El representante de la Coordinadora de ONGD y miembro de la Comisión Permanente explica que era urgente que se ofreciese la posibilidad de hacer aportaciones a los presupuestos, ante su inminente aprobación. Se agradece a Duñike y al equipo el haber conseguido encontrar un hueco, y recuerda que el Consejo es espacio de colaboración y participación, para entre todas/os avanzar en materia de cooperación.

**2.-, 3.- y 4.- Presentación de la Presidenta de los presupuestos previstos para 2016, líneas estratégicas y de actuación de la legislatura, y análisis de los espacios y cauces de participación establecidos por el gobierno municipal en materia de cooperación.**

Se pasa una copia del presupuesto 2016 de cooperación a las asistentes. La Presidenta dice que se ha hecho un planteamiento de continuidad con respecto al año anterior, y que la única diferencia es que se ha restado un 10% de la convocatoria de subvenciones de cooperación, y con ese 10% se ha creado una nueva línea destinada a ayuda de emergencia. Se ha puesto con motivo de la llegada de personas refugiadas sirias, que parecía inminente, aunque al final están llegando muy poco a poco. El resto de subvenciones siguen como estaban establecidas antes, subvenciones de cooperación y sensibilización, y convenios siguen igual, así como el resto del presupuesto.

Respecto a las líneas estratégicas, en los primeros meses de 2016 se va a hacer una evaluación del Plan Director 2011-2015, y hay que elaborar un nuevo Plan, para ponerlo en marcha a partir de 2017. Para ello, se espera contar con la participación del Consejo. Habrá líneas comunes y coordinación con la Diputación de Gipuzkoa, y si puede ser con más instituciones, mejor.

Parte hartzeko bideei dagokienez, Lankidetza Kontseiluari eutsiko zaio, eta harengandik sortutako lantaldeei.

Lehendakariak proposatu du hitz egiteko txandak irekitzea.

Kontseiluko kideek esan dute ez dela egia aurrekontuari eutsi zaionik; izan ere, Udalaren aurrekontu orokorra handitu denez, 2014an % 0,47 zen, eta aurten % 0,44. Atzera egiten ari da, krisiaren aurretik % 0,48 baitzen, eta Udala dagoeneko gainerako erakundeen batez bestekoaren azpitik zebilen. Kezkagarria da hori.

Kezkatzekoa da, orobat, gastu arruntak ehunekotan gora egitea, aurrekontuen osagaien artean. Horrek esan nahi du gastu materialak handitu direla, eta benetan garrantzia duena proiektuak dira. Gastu arrunta 8 hamarren igo da, transferentzien eta diru laguntzen lepotik. 4. kapituluari helduta, linea berri bat sartzen bada, ez litzateke aurrekoen lepotik izan behar. Bestalde, eztabaidagarria da iheslariak artatzeko diruak Lankidetzatik kentzea, eta ez Gizarte Ongizatetik, edo Giza Eskubideetatik.

Zuzendaritzatik azaldu dute lehen Giza Eskubideen sailak ordaintzen zuela eraikinaren gastu osoa, eta orain sail guztien artean banatzen ari direla, banaketa zuzenagoa izan dadin. Horregatik, 15.000 euro bideratuko dira eraikinaren gastuetarako, iaz baino gehiago. Beste alde batetik, ez daude hor jasota Donostia 2016rekiko lankidetzako 8.000 euroak; eta, gainera, kontuan izan behar da Euskal Fondoa eraikin horretan bertan dagoela, eta ez duela gasturik ordaintzen.

Kontseiluko zenbait kidek iradoki dute ezen, orduan, lankidetzako aurrekontua 12.000 euroan handitu beharko litzatekeela, eta gastuaren banaketa berri hori orekatu. Bestela, gastu hori lankidetzara egoztearen onura jasotzen ari da Giza Eskubideen saila.

EH Bilduren ordezkariak azalpenak eskatu ditu, Donostia 2016ren 8.000 euro horiek direla eta. Esplikatu da aurrekontu programa bat sortu dela Donostia 2016rako, eta hor sartuta daudela sail bakoitzetik kudeatuko diren kopuruak.

Respecto a los cauces de participación, se mantendrá el Consejo de Cooperación, y los grupos de trabajo que surjan de éste.

La Presidenta propone abrir turno de intervenciones.

Miembros del Consejo afirman que no es cierto que se mantenga el presupuesto, ya que, al aumentar el presupuesto general del Ayuntamiento, en 2014 era un 0,47% y este año un 0,44%. Se está retrocediendo, ya que antes de la crisis era un 0,48%, y el Ayuntamiento ya estaba debajo de la media del resto de instituciones, lo cual es preocupante.

También preocupa que el gasto corriente esté subiendo porcentualmente dentro de la composición del presupuesto, eso significa que aumentan los gastos materiales cuando lo realmente importante son los proyectos. El gasto corriente ha subido 8 décimas, a costa de transferencias y subvenciones. Centrándonos en el capítulo 4, si se introduce una nueva línea, no debería ser a costa de los anteriores. Por otro lado, es discutible que los fondos para atención a las personas refugiadas se detraigan de Cooperación, y no de Bienestar Social, o Derechos Humanos.

Desde la Dirección, se explica que anteriormente era el departamento de Derechos Humanos quien asumía el gasto íntegro del edificio, y ahora se está repartiendo entre todos los departamentos, para que sea una distribución más equitativa. Por ello, se destinarán 15.000 € a gatos del edificio, más que el año pasado. Por otra parte, no se reflejan aquí 8.000 € de colaboración con DSS2016 y además, hay que tener en cuenta que Euskal Fondoa está en este mismo edificio, y no paga gastos.

Miembros del Consejo sugieren que, entonces, habría que incrementar el presupuesto de cooperación en 12.000 € y equilibrar esa distribución nueva de gasto. Si no, el departamento de Derechos Humanos, se está beneficiando de la imputación a cooperación de ese gasto.

La representante de EH Bildu pide explicaciones sobre esos 8.000 € de DSS2016. Se explica que se ha creado un programa presupuestario para DSS2016, en el que se incluyen cantidades que van a gestionar los distintos departamentos.

Kezka eragiten du, era berean, zuzeneko lankidetza —Udalak berak egiten duena, deialdi publikora atera gabe— urtez urte gehitzeak. Izan ere, % 38 da, baina Lankidetzari buruzko Euskadiko Legean zehaztuta dago % 10 izan beharko litzatekeela gehienez.

Lehendakariak esan du kontuan hartuko direla ekarpen guztiak. Hurrengo urratsa da taldeek aurkeztutako zuzenketak ikuskatzea, eta abenduaren 22raino ez da jakingo zein izango den behin betiko aurrekontua. Gobernu Taldearen proposamena hori da.

GGKEen Koordinakundeak eskatu du ezen, gutxienez, iazko % 0,47 horri euts dakiola, eta galdetu du ea nola kudeatuko den larrialdiko laguntzaren linea berria. Izan ere, lankidetzako diru laguntzak murriztu egin dira, eta eztabaidagarria da, oso, diru horiek hemen dauden pertsonak (iheslariak) zuzenean artatzera bideratzea.

Ogasuneko zinegotziak azaldu du kapituluak ez direla lotesleak. Gauza batean gastatzen ez bada, beste batera bidera daiteke (iheslariak ez baldin badatoz, esaterako). Hori, ordea, ez da jakingo urtarrilean, baizik eta urrian.

Hala ere, diru laguntzen deialdia urtarrilean aterako denez, dagoeneko ezinezkoa litzateke handitzea, diru horiek gastatzen ez badira.

Kontseiluko kideek galdetu dute ea, orduan, larrialdiko laguntzak ez duen ekarriko oinarriak aldatzea, ez eta gizaldeko ekintzako deialdi espezifiko bat ere.

Lehendakariak erantzun du ezetz, etortzekoak ziren iheslari familientzako erreserba bat dela.

EH Bilduk ohartarazi du ezen, kontu sail horretaz gain, badela 30.000 euroren beste bat, Kultur Aniztasunean; eta baietsi du ezen, ehunekotan, Kultura Aniztasuneko, Lankidetzako, Berdintasuneko eta Gizarte Ongizateko sailak jaitsi egin direla aurten.

Beste GGKE batzuek jarraitu dute, beren kezka agertuz murriztu egin delako Lankidetzako aurrekontua, hain zuzen ere Udalaren aurrekontua handitzen hasi den urtean. Ogasuneko zinegotziak azaldu du handitu dena inbertsioak direla, aurreko urteetan ezer inbertitu ez delako eta gabezia asko dagoelako. Erantzun

También preocupa que se esté incrementando año a año la cooperación directa, la que realiza el propio Ayuntamiento, y no sale a convocatoria pública, ya que asciende al 38%, cuando la Ley vasca de Cooperación indica que el máximo debería ser el 10%.

La Presidenta dice que se tendrán en cuenta todas las aportaciones. El siguiente paso es revisar las enmiendas presentadas por los grupos, y hasta el día 22 de diciembre no se sabe cuál será el presupuesto definitivo. Como equipo de gobierno ésta es la propuesta.

La Coordinadora de ONGD pide que, al menos, se mantenga el 0,47% del año pasado, y pregunta cómo se va a gestionar la línea nueva de ayuda de emergencia. Ya que las subvenciones de cooperación bajan, y es muy cuestionable que esos fondos se destinen a atención directa a personas aquí (refugiadas).

El Concejal de Hacienda explica que los capítulos no son vinculantes. Si no se gasta en una cosa, se puede destinar a otra (si no vienen personas refugiadas, por ejemplo) Aunque eso no se sabrá en enero, sino en octubre.

Sin embargo, al salir la convocatoria de subvenciones en enero, no sería ya posible incrementarla en caso de que esos fondos no se gasten.

Miembros del Consejo preguntan si, entonces, la ayuda de emergencia, no va a suponer una modificación de las bases, ni una convocatoria específica de acción humanitaria.

La Presidenta responde que no, es una reserva en previsión de las familias refugiadas que iban a venir.

EH Bildu apunta que, aparte de esta partida, hay otra de 30.000 € en Diversidad Cultural, y afirma que, porcentualmente, los departamentos de Diversidad Cultural, Cooperación, Igualdad y Bienestar Social han bajado este año.

Continúan otras ONGD expresando su preocupación por el hecho de que se reduzca el presupuesto de Cooperación justo el año en que el presupuesto del Ayuntamiento empieza a aumentar, a lo que el Concejal de Hacienda explica que lo que se han aumentado son las inversiones, porque en los años pasados no se

diote lankidetzan ere badirela gabeziak, eta lehentasun politikoen kontua dela. GGKEak aurrekontuen % 0,7 eskatzen ari dira dagoeneko 1990eko hamarkadatik hasita.

Segidan, Kontseiluko zenbait kidek eskatu dute zuzenketaren bat onar dadila, lankidetzako aurrekontua gutxienez aurreko urteko % 0,47arekin berdintzeko. Kontseiluak segimendua egingo du, ikusteko ea Gobernuak % 0,7ra hurbiltzeko asmoa duen, eta ea kopuru hori nola banatzen den. Gainera, eskatu dute Kontseilua ez dadila argibideak emateko soilik izan, baizik eta gaiak eztabaidatzeko aukera izan dadila. Konparazio baterako, eztabaida dadila ea iheslarien gaia Lankidetzari dagokion edo ez. Dagoeneko parte hartzea piztea zaila izanik, gainera dena erabakita dagoela etortzen badira, Kontseiluak ez du zentzurik.

Lehendakariak erantzun du oraingoan presa izan dela, aurrekontua lehenbailehen onartzeko konpromiso politikoa zegoelako, urtea hastean aurrekontu berria izan dadin. Espero du datorren urterako gehiago eta hobeto lan egin ahal izango dela. Esandako guztia aditu du, eta otsailean berriz ere parte hartzea eskatuko da, aurreko Gida Plana ebaluatzeko lanetan.

Kontseiluko kideek gogorarazi dute, azkenik, aurreko legealdietako gida planak eta oinarriak parte hartzearekin egin direla, ibilbide eta eraikuntza kolektibo bat egin dela.

Bilera bukatu dela adierazi dute 11:20an.

ha invertido nada, y hay muchas carencias. Se le responde que también hay carencias en cooperación, y que es una cuestión de prioridad política. Las ONGD vienen reclamando el 0,7 % ya desde los años 90.

A continuación, miembros del Consejo solicitan que se apruebe alguna enmienda, para equiparar el presupuesto de cooperación, al menos, al 0,47% del año anterior. El Consejo hará seguimiento para ver si el gobierno se plantea ir acercándose al 0,7% y cómo se distribuye esa cantidad. Además, solicitan que el Consejo no sea meramente informativo, sino que haya oportunidad de debatir los temas. Por ejemplo, que temas como el de las personas refugiadas, se debata si corresponde a cooperación o no. Si ya es difícil activar la participación, si además se viene con todo hecho, el Consejo deja de tener sentido.

La Presidenta responde que esta vez ha habido prisa porque había el compromiso político de aprobar el presupuesto lo antes posible, para que al comenzar el año haya nuevo presupuesto. Espera que cara al año que viene se pueda trabajar más y mejor. Ha escuchado todo lo dicho, y se pedirá la participación de nuevo en febrero, para trabajar en la evaluación del Plan Director anterior.

Miembros del Consejo recuerdan, por último, que se tenga en cuenta que los Planes Directores y bases de legislaturas anteriores han sido hechos con participación, que ha habido un recorrido y construcción colectiva.

Se da por finalizada la reunión a las 11h20.